

BETELU



Xarelan

84

BETELU

Iruñeatik gutxi gora behera 40 minututara, Nafarroako ipar-mendebaldean, herri polit bat aurkitu nuen. Bere izena Betelu da. 350 biztanle inguru ditu eta gehienek goi-nafarreraz hitzegiten dute. Entziklopediek diotenez, %80-ak hitzegiten du euskeraz. Herri guztiek bezala, honek ere aberastasun ugari ditu eta guzti horiek adierazten saiatu zen Frantzisko Sorabilla, beteluarra, nire galderari erantzunez.

Beteluarren iharduera ekonomikoei buruz honako hau esan zidan: "Ba bere, nik berroitamar biño geigo battut ta urte oitan aldaera aundik izan due. Oain dela berroitamar urte etxe guzitan animaliak bazeen, txerrik, ardik, olloak, beiek... denetatik. Geinak ganaderin ta nekazaritzan aitzen ginen lanean. Tratoreik etzen. Gañea bideak oso txarrak zeen ta idikin ta astoakin iilli bear izaten ginen len: belarretan, ongarriketan, eurketan ta denetan.

Geo suerte geixago izan zuenak ee bazeen. Garai artan Balnearioa zegoan Betelun. Ikearriko fama zun ta kanpotar asko etortzen zuen bañuk artzea, ta an ee jende dexente aitzen zen lanean. Bi iturri dae: Dama-Iturri, giltzurriñak garbitzeko oso ona ta Iturri-Santu, surpegie ta gorputze garbitzeko eiltzen dena. Ure epel-epel la ateatzen da ta ustel usaie ikearri du, arraultze tolortak bezala.

Biññ alare denantzat etzen naiko lana. Etxe bakoitzeán jende asko bizi ginen. Geo batzuk Tolosaa, besteek Leitzea, besteak Gipuzkoa... pixke pixke aldein einzuen.

Andik urte batzutaa fabrike at einzuen. Ordun jendea franko asi zen an lanean, geo ta geigo. Ta baserrik pixkoat beira ein zun. Zarrak bakarrik asi zeen gelditzen. Balnearioa-re bota einzuen ta ure enbotellatzen asi zeen, saltzeko, ta an ee jendea empleatzen da. Besteatzuk badee been negozioak battuenak ta jenealeen familikoek aitzen dee lanean". Bere lanei buruz hau zioen: "Guk urte guzin lana

izaten duu. Udan belarra biltzen negueko. Primaberan asten gaa lenbiziko belarrak mozten. Negue naiko lasai paasten duu. Biño azindan lanak eunero-eunero ein behar izaten dee. Negun urtero-urtero txerrie iltzen duu. Beharko urdaiazpiko ona jan nai baduu!". Ete langabeziari dagokionez: "Ez dut uste. Nik dakite la bintzet paroik eztao".

Ondoren beren ohiturak adierazi zizkidan: "Nik uste asi beharko ginakela erriko pestetatik. San Pedro eunean izaten dee. Oso jai andie da Betelun. Denbo-
stean akordiona bakarrik izaten zen atsaldero plazan, biño oain orkesta onak ekartzen ditue. Beste oitura bat Betelukoa bakarrik, Eguerri egunean allandoak biltzea da. Meza Nausi ondorean, ume ttiki guzik zaku koskor bat artuta etxez etxe juaten dee kantari, Jesusentzat limosna eskatuz. Normalean naranjak, intxaurrek, mandarinak, saarrak, ... oitatik ematen zaizkie.

Geo, Eguerrik akaatzean, erregetan, erriko gazteak iiltzen dee etxez etxe, diru biltzen ta bazkari ear bat eiten due. Errege eunean atsaldean musika izaten da erriko plazan.

Ta beste oitura at nik uste beste Naparroko herri guzitan ikusten dena. Pazko biarrenean, Migel Aingeruaren bisita artzen duu. Goizean Errazkingo mugaa juaten gaa prozesioan ta atsaldean Intzea eamaten duu berriz prozesioan.

Oiture inportantanak ok dee neetzako".

Ondoren, euskara eta bere erabilerari buruz galdetu nion eta haxe erantzun zidan: "Nee gazte denboan, denak euskeaz aitzen ginen Betelun, gazteak eta zarrak. Ni eskolan asi nitzenean erdaaz enekin. Millaka aldiz eskriituta nao maxu kastellanoastik kastiatuta, "No hablaré vasco". Ta nik bezalaxe beste lagun guzik. Gu beti euskeaz aitzen gaa biño gazteak erdaaz asko sumatzen ttut. Ez da ez dakielako, biño erraxago aiko dee, seuro aski.

Giroa, euskalduna da Betelun".

Betelun eskola bat ere badute. Honela zioen Frantziskok: "Bai, Betelun beste herri guzietan bezala eskola bada. Nee gazte denboan bi eskola zeuden. Bat mutikoantzat eta bestea neskatoantzat. Mutikoakin maxue eoten zen ta neskatoakin maestra. Beste denboatzuk zeen!. Oain dela iru bat urte eskola at berrie ta

aundiagoa ein zen, ta Betelu ta Araizko ume guzik biltzen dee. Ikasleak zortzigarren kursoaño eoten dee ta geo estudiatzen seitzeko batzuk Tolosaa, besteak Iruñea jua bear izaten due, institutoa".

Eta azkenik, Frantziskok Betelutik gehien atsegin dituen gauzak kontatu zizkidan: "Nik esan duten bezala berroitamar urte pasate nao ta geina gustatzen zaitena da erri ontan daon lasaitasuna. Oain, autobia ein zuenetik, auto oso gutxi dabil kamioan, ta, naiz tratorearekin o bizikletakin askoz lasaigo eiltzen gaa. Geo usteet gaudela leku pribilegiatu atean, berrogei kilometro Iruñea ta berrogei Donostie. Onekin esan nai dut jendeak joera igualtsu dula batea ta bestea.

Gazteak ee errin asko ikusten ttut aste burutan. Denak kuadrillen ta, oso ongi.

Ta eiten ai gaan soziedadea akaatzen duanean, nik uste askoz gustoago eongo geala errin".

Horrela bukatu zen gure elkarrizketa. Mila esker zor dizkiot Frantziskori. Berarengatik ez balitz, ez dakit nola egingo nukeen lan hau!

Eskerrak emanez agurtu nuen, eta nire etxera joan nintzen lan hau idaztera.

